

# Urizaharra

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak



URI  
ZAHHA  
RRA



## Urizaharra

*Ezezaguna bezain zoragarria, Urizaharrak Erdi Aroko sekretuak gordetzen ditu. Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko bidegurutzean, lau gaztelu, lau, eraiki izan ziren garai zahar haietan –Urizaharra, Villamonte, Herrera eta Mendiluzea– elkarren ikusterrean laurak, elkarretatik ez hain urruti. Egungo egunetan hori ezinezko, haien aurrriak, herexak baino ez baitira zutik geratzen, honela ere, haien lorratza Arabako Mendialde honetan beti agerian, izan ere, hemen zehar Araba-Errioxarako bidea doa eta hemen gaindi gure lurraldeko errepide eta ingurualderik politenetako bat.*

*Erdi Aroko hiribildua da Urizaharra, XIII. mendean eraikia edo irasia. Harresiko atetzarra hortxe lekuko, bi babes-dorre trinko erdibiribil dituena, zaindari antzo, eta “matacán” esaten zioten harrizko balkoi etsaiari erasoteko prestatua zegoena goialdean. Gotorleku zinez gotorra! Eta harresiaren barruan etxeak, bizietxeak, eta aire zabalean museo, oro har nekazari itxurakoa, Errondako Pasealekuan.*

*Udalerria, osatzen duten sei herrixkak, mendi ederrez inguratua dago. Mendietan haitzuloak, Faidukoak eskuz egindakoak adibidez, San Leongoak berez harkaitzetan sortuak; ura ere non-nahi eta Uraren Bidatza ibiltzaleen gozagarri, Herreriasko ur-jauziak ahantzi bage; ingurugiro gozoa, beraz, dena.*



Amamarengandik  
bilobarengana

Lehen eta orain





# Angelines Pinedo-rekin

Urizaharra

Urizaharrako errepidetik ibiltea parentesi batean sartzea bezalakoxea da. Gorantz igo behar eta laster harresiko harriak ageri, hegoaldeko atea egiteko biribilduak. Gaintora baino lehen, herria haize-abarroan; gaina irago eta gero, beherantz, norantz joaiten den, betiko okindegia aurkitzen duzu, herriko guztiak ezagutzen eta ezagunak diren ogi-saltokia.

Angelines Pinedo' Pagoeta edo Paiueta herrikoa da, jaiotzez, baina kilometro batera dagoen Urizaharrara ezkondu zen eta, beronez gero bertan bizi da. Etxea okindegia da, lana egur-labekoa zuen, ogia egitekoa hain zuzen, eskuz eta bero arinez oreka landu eta landu ondorean.

1935ean jaio zen, nekazari-etxe batean. Ahizpa bi eta neba bi ziren, eta bera etxeko lanak egiten aritzen zen bitartean, besteak soroetara joaiten ziren. Etxean nahi adina lan eta gehiago, amama eta aitita bertan ere bizi zirelarik. “Ni etxean pozarren geratzen nintzen, soroko lana maite ez nuen eta”.

Josten eta brodatzen ikasi zuen, aurrenik Urizaharrako jostun batekin. Etxerean atera, oinez ibili eta jostera, “txirrindurik ez orduan”; gero. Gasteizera hasi zen, akademia batean, negu batzuetan, ikastera. Hiriburuan geratzen zen, joan-etorria ez egitearren noski, ahaide batzuen etxean.



“

*Soroa hotza eta  
gogorra zen”*





## Neskak etxean

*Angelinesen alabak errota eta okindegi aurrean*

# Ezkontzagatik okin

Jose Luis betidanik ezaguna zuen, “nik banekien nora nindoan eta honegatik ezkondu nintzen, ez zen zaila, aitzitik, dena oso ondo”. Bata besteagandik kilometro batera bizi eta igandeetan Urizaharran dantzaldia, gazte batek akordeoia jo eta jo, arratsalde pasa, eta hantxe elkartu ziren, betirako batu. Inguruetako herrietan gazteak orduan orain baino ugariago eta hantxe bildu ohi ziren eta halaxe bikoteak osatzen ere bai, dantzarako eta bizialdi osorako.


Bi urtean senar-emaztegai eta ezkontza heldu zen, eta Angelinesentzat bizi modu berria, aita-amaginarreben etxean, okinetxean. “Niri goitik oihuz: ‘jaits hadi, ore a egina zagon eta’, eta ni arin-arin labera sartzera eta gero ateratzera”.

Behin, ezbeharra, irina oratzeko arrabolak eskua zapaldu zion eta hatz bat pitzatu zion. “Oraino orduan ez zen elektrikoa, biratzen ari zeino ore a egotzi behar zitzaion”. Ez ordu haretantxe ez beste inoiz ere hartu zuen gaiso-atsedenik, ez eta seme-alabez erditzean ere. Angelines, emakume nekazari asko bezala, Gi-zarte Asegurantzian ez da inoiz izen emanda egon, eta orain, alargun, damu du.

Harentzat txarrena ordutegiak ziren, “hori ez nuen gogoko”, eta orduan ez zen jaikitzen oherean orain bezain goizik, gaurko gauetan goizeko hirurak irian jaiki ohi dira. Orduan ogi gutiago zen egiten eta beranduago banatzen.

Angelinesek beribila gidatzen ere ikasi zuen, gogoko ez zuen arren, eta alabak gida-agiria eskura baizen laster, lekukoa, bolantea hala egia, alabari eskualdatu zion. Ordurako, berriz, eskualdeko herrietan barrena hamaika ogi banatuta zegoen!





“

*Okindegiko  
mutila zen”*



“

*Ospea badu, bai.  
Sekreturik  
bat ere ez”*

## Errota

Garai haietako biziera lana eta lana zen, atsedetik ez. Etxea eta okindegia bat ziren, eta ondoan errota, eta indarra emaiten zion ur-turrusta bertan.

Urizaharrako irin-eihera 1778koa da.

Senitarteek diotenez, Jose Luisen birraitita batek, Errioxako Abalos herrirean etorriak, herrian zegozen eihera bietako bat erosi zuen, jabea zuena hain zuzen. Gero okindegia eratziki zioten, eta gainean bizitokia eraiki.

Harriak higiarazteko, ibilarazteko lurpeko iturburutik sortzen den ur-lasterra erabilten dute; harriak bi: bata garia ehaiteko, bestea pentsua egiteko. Angelinesen unibertso tiki baina gozo hau guzti hau, ama-orean, ogian, eta egur-labea dago, dena senitartean: “Ogi oso gozoa da, egunean ondo irauten du eta biharamunean egin berri bezala jaten da”.



## Ogiagatik batu-rik, baina oki- nen leinuarenak egin du

Egia beti gora, eta alaba batekin seme batek bere emazteagaz ogi saltzen aurrera egiten badu ere, bere bilobek ez dute etorkizunean langintza berean irauteko asmorik. Okindegiko lana nekagarri, orduak maiz ezordu, eta urtean birritan opor-egun: gabonilak 25 eta urtarrilak 1.

Gainera egungo salneurriak ez dira behar bezalakoak, hau eta honegatik argi du Julen Diaz bilobak: “Nola lehia zaitezke ogi-barra 60 zentimotan saltzen duen merkatuan?”.

Hala eta guztiz ere, sendi hau eta herri hau bat eginik dagoz, biziki. Jose Luisek erretiro hartu zuenean, “arazgetu” zenean hala egia, seme-alaba bik eta suhiak garatza hartu zuten. Julenek ogia egitean asko lagundu ez duela aitortzen duen arren, aitak txirrinduz ibiltera joaiten zenean berak eta bere arrebak haren txandak egin behar zituztela dio. “Eta bai pozarren ni furgonetan banatzera”, gogoratzen du irribarretsu.

*Sendiaren bilduma* ►





“

*Ezin da lehiatu”*

# Harrijasotzaile

Julen Angelinesen zortzi bilobetako bat da. Erdiak amamaren herrian bizi dira. Abokatu, gizarte-hezitzaile eta harrijasotzaile, Julen. Urizaharran bizi da, betiko, eta bere hogeita hamar urtetan hamaika egiteko jaio eta iaio dela dirudi. Ari daiteke garan daduzkan hiru motorretako bat konpontzen, ari daiteke txokoan adiskide-auzokideekin jarduten edo ari daiteke beste norbaiti beharretan, atazetan laguntzen, beti arian ari.

Herrian beti badago egitekorik; “Gasteizen telebista ikusten edo tabernan nagoela iruditzen zait”. Justizia zibilean lan egiten du, kondena betetzen duten gazteekin, eta harriak jasotzen zaletu zenaz gero gorputz sendoa eta indartsua duenez, bere lanbide horretan ondo baliagarri zaio, itzal handikoa baita, eta behar ere usu.

Oraingoz, azken aldietan Euskal Herriko mailarik goienean lehiatzen den arabar bakarra da. Heren marka 225 kilo. Harri errektangularra izan ohi da pisu horretakoa, eta 6 aldiz jasotzen du 3 minutuko txandan.

Dena Montoriako jaietan hasi zen. Aizkolariak ekartea garesti eta Julen adiskide batekin aizkoran aritu zen, abari baten ordainetan. Harez gero, urrutira bage, aizkolari batekin ikasten hasi zen, Urizaharrara basurdetara etorri ohi baitzen.

Izan ere, Arabako herrietan horiek horrela izan ohi dira, auzokideekin elkar lanean jarduteak bizitzan hobetzeko eta aurrera egiteko aukera ekarten du, inora bagerik, izenarekin izana lortzeko abagunea, Gaztelako eta Nafarroako lurren ukigunea zen nekazari gune honetan.







“

*Hirian ez dut  
ezer egiten”*



# Urizaharra

# EZIN BESTE KOAK

- 1 Nekazari lanak
- 2 Dorretzar biribilak
- 3 1778ko errota eta okindegia
- 4 Eliza
- 5 Haitzuloak



*Argazki-oina: E. Guinea. Gasteizko Udal Artxiboa*

- 6 Herri zaharrak
- 7 Herreriasko ur-jauzia
- 8 Toloñoiko monasterioa

- 9 Asfalto naturala
- 10 Ipar ibilketa eta BTT

*Felix Lopez de Ullibarriri eskerrak*

## 1

## Nekazari lanak

Urizaharrako hiribilduan inguru-bidea dago, Erdi Aroko gazteluetan bezala, harresia alde batean eta beste aldean lurgingen baratzeak, eta hor erakusketa bat ipini dute, antzinatean lurraldeko gizon-emakumeek erabilten zituzten tresnak, lanabesak, langaiak erakusteko. Lurrari, lanaldi luzeetan, fruitua biltzeko gailuak, batzuk bakanak bestetzuk balio handikoak, nekazaritza, abeltzaintza eta garraioa nolakoak ziren erakusteko ikusgai aire zabaleko museo horretan.

Urizaharrako Aire Zabaleko Museo Etnografikoak ibilbide historiko bat eskaintzen du, darakuskien 200 tresnen bitartez. Araba osoko nekazariak berek emaniko lanabesak dira gehienak, erositakoak batzuk, utzitakoak beredin. Anbiolako laia eskuz indarka lurra iraultzeko tresna zaharretik hasi eta aurreko mendean iritsitako traktorera. Hor eultzi edo trapa andana bat, motoreak, paketa-makinak, e.a. nekazaritzan eta abeltzaintzan nolako nondik-norako sakonak ikus eta ulertzeko tresnak, eskuzko lanetik makinatzarretara iraganikoak.

*Emakume nekazariak aurreko mendean larrain egitean Lopez de Guereñu. Photo-Araba* ►







Urizaharra gainetik ikusia ▲  
Photo-Araba

2

## Dorretzar biribilak

Urizaharrako hegoaldean dorretzar biren artean atetzar bat eta bertotik barrura sartzea filme batean bezala da. Erdi Aroa gure orainaldi honetan, itxuraz, orduan errege gaztelarrak Araba osoan zehar konkistan ekin eta ekin.

Urizaharra sortu zeneko foru-eskutitza galdurik dago, baina hiribildu hau bide oso garrantzi handikoa begirapetzeko, kontrolatzeko alegia, eraiki zela ez dago zalantzarik, Nafarroako mugak indartu beharra zegoela eta; orduan Gaztelan errege Alfontso X. Jakintsua, XIII. mende aldean. Egun ere ondo ikus daiteke hiribilduaren egitamu egin-egina, arbendola itxurakoa, erdibiribila. Harresi lodiak inguratzen zuen, nahiz eta

orain aurri batzuk baino ez geratu. Gaztelako errege Enrike II.ak “Peñacerrada” hiria Sarmiento-tarren leinu boteretsuari eman zion, Diego Gomez Sarmientori hain zuzen, erresumako gozogile nagusia baitzen. Sarmientotarren armarria oraindik ere Hijarko dukeen etxean nabari.

Harresi inguruko ibilbidetik ikusita –horma-irudietan ekandu zaharreko irudi zoragarriak– begiak beteko paisaia inguru osoan. “Peñacerrada” tokizena garai haietatik dator eta ez da oso garbia: herria antzinako Peña izeneko baserri baten gainean eraiki ote zen? Nondik “cerrada” atzizki hori? “Penna-çerrada” “Penna-amurallada” ote da?



## 3

## 1778ko errota eta okindegia

Urizaharrara sartutakoan, Gasteiztik errepidez, herriko guztiek ezagun duten tokia ikusten da: okinetxea. Alonso sendia bertan bizi da, irina eho, orea egin eta ogia ekoitzi eta saltzen den tokia, orain laugarren belaunaldiak hor dirau lan eta lan, gero eta gogorragoa den lanbide ezinbesteko horretan, okintzan.

Urtean hiru opor-egun, beste guztietan oratu eta banatu beharra, atsedenek ez. Arabako hiriburuan, Gasteizen, 25 saltokik saltzen dute Urizaharrako ogia, eta beste leku batzuetako ogia orobat. “Gehienetan bospasei ogi-barra baino ez duzu uzten, beraz, bentzina eta gurpilak xahutu, besterik ez”.

“Sobado” delako ogi mota da “izarra”, ekologikoa ere ondo saltzen da, larunbatean egiten dutena. Errota zaharra erabilten dute, oraindik, 1778koa dena; tobera, harriak, garabia... hor dagoz eta dabiltza, nahiz eta gero eta ur gutiago izan, eta urik bage ez dago ehaierik, ez dago eiherarik. “Lehortea gogorra da”, dio Edortak; La Fuente (Iturria) esaten dioten iturburutik ur-lastera aspaldi axkar-axkar jaisten ikusten zuen.

Edorta Alonsok hogeitau urte zuenetik lanbide honetan dihardu, orduan gazte eta ikasle baina behar zenean lanari ekiten zitzaion, lagundu behar eta. Okinetxean bizitzea “zori ona da, batzuen eritziz, eta zori txarra, nik diodanez, egun osoan lanean zagoz eta”. Gaur egun sendiaren negozioa, garatza berak kudeatzen du, emaztearekin eta arreba batekin.

*Edorta Alonso, Urizaharrako okina eta azken errotaria*









## 4

## Eliza

Jasokundeko Andere Mariaren eliza, trantszioko atalde erromanikoa eta dorrea eta kanpandorre neoklasikoa dituena herriko bakarra da, eta, Arabako hiribildu harresidun gehiengintan ez bezala, ez da gotorleku-eliza. Barruan bitxi oso ikusgarri batzuk daduzka, hiru aurpegiko buru bat, esaterako, eta deabruzko itxuradun eskultura bat, orobat.

Erretaula nagusia errenazentista itxurako gauza miresgarria da, tankera horretan Euskadin dagozen artean garantzitsuenetako bat, eiki, ikonografia guztia, ohi bezala, birjinari eskainia baita.

Korua intxaurkiz egina zinez polit-polita da. Lau intxaurrondo zuzuraz egin ei zuten, sei mila errealeko balio, eta apainduran paisaiak eta egitura arkitektoniko harrigarriak ditu. Erlieberik ederrena erdialdeko jarlekuan dagoena, Mauricio Valdivieso zizelkari arabarrak egina da, Valdivieso-tarrek XVIII. mendearen azkenaldian, zura lantzeko aroztegia zuten, Pagoeta herrixkan, eta horregatik “Pagoetako santugileak” esaten omen zieten.

Lignum Crucis delako erlikia-ontzia, prozesio-gurutze bat da Ramírez de La Piscina sendikoeek emana, berau eskualdeko beste askazi argidotar bat zen, eta haietako batzuk elizaren barruan ehortzirik dautza. Beste antze-lan ikusgarri bat ere badago, frai Jacinto Martínez-en aurpegi-argazkia; kaputxino eta teologo, urizahartarra jakina, Habanako gotzain izan zen.



▲ Intxaurkizko korua, zati bat

◀ Erretaula ikusgai

## 5

## Haitzuloak




*Faidu. Lopez de Guereñu. Photo-Araba*

Faidu herriaren goialdean, eskuz egindako haitzulo mordo bat dago, Arabako handiena eta zirrargarriena. VI-XI. mendeen artean bizitoki izan ziren; hasieran lau estai edo mailakoak ei ziren, eta bertan idazkunak, hilobiak, eta horma-irudi harpetarrak aurkitu dira. Batean, Peñako Andere Mariaren basiliza eraiki zen, Euskadiko Monumentu Nazional izendatua, Euskal Herrian dagoen basilizarik zaharrena delakoan. Hemen dena harrigarri da, alde batetik sarguko ar-

kua; bestetik, hormetan dagoen marrazki oso eder-zaharrak; eta haitzean zulaturiko bizigu edo egonguak.

Baroja edo Barrotzatik hurbil, Loza ere hor, beste haitzulo edo harpe tikiago batzuk dagoz, Faidukoak bezain ezagunak ez, baina ingurualdean ondo bai ondo sartuak eta sasiz estalixeak direlako lilura puntu batekoak dira. Herriko batek hara lagundu ezik, nekez dituzu edirenen.



Pagoetatiko ikuspegia

6

## Herri zaharrak

Urizaharra herrixka txit zaharrez inguratua dago, haitz eta baso edo berro sarriz beteriko ingurualde batean, antzinateko haitzulo ugari han-hor-hemen sakabanturik, beraz, honek guzti honek bere xarma emaiten dio. Montoria ondoko egarari, aurkintzari Arabako “Parke Jurasikoa” esaten diote, fosilak-eta non-nahi. Pagoetako enparantz an eliza, Jaun Done Ibanerena, hau da San Joanena, baina ikusteko ere iturri-ikuztoki-aska.

Lozan 15 lagun bizi dira, gehienak adinekoak, eta nabaritzeko Sarmiento sendiaren jauretzea, edo dorretxe izandakoa, noizbait inguru osoko jabe izan zen leinuarena, errege gaztelarraren morroi. XV. mendeko distira haretatik ez da ezer geratzen, leihoko mazmarroak eta puntuerdiko arkuak baizik ez.

Dorretxe zena nekazari-etxe bilakatu zen, eta Maria Luisa Albaina eta José Mari Ladre-ra bizi dira, laborea ekoizten dutenak, “hemen bizi gara eta hemen hilko gara” diote.



Jose Mari emaztearen sendiaren etxe aurrean, Sarmientotarren dorretxea, XV. mendekoa



7

## Herreriasko ur-jauzia

Euskadin dagozen ur-jauzietan garaienetakoa bat. Uraren bidatza esaten zaionaren zati da; Inglares erreka ondotik doan bideak 10 km. du, hasi eta buka leku berean, ez da oso nekagarria, zuhaitz ederrik askok apaindua; izan ere, Arabako Mendialdea deritzon eskualdearen erdia zuhaitzi da! Inglares ibaia mila metro goitik jaisten da, San Leon mendian jaiorik eta 18 kilometro egiten du, aipatu eskualde edo zertan horretan zehar. Uraren bidatza Bergantzu herrian hasten

da, Pagoetatik aurrera doa eta bi ordu eta erdiz ibil daiteke, guti gora-behera. Herreriasko ur-jauzia oso ikusgarria denez erakargarria ere bada eta bertara hurreratzeko kopuru-muga dago, lekua babestearren; zerbaitekin erkatu ahal badaiteke, Nerbioiko Jauziarekin egin daiteke ez besterekin. Ikustera joan nahi izanez gero, aurretik ondo antolatu eta sarrera eskatu behar da.



8

## Toloñoako monasterioa

Kantabria mendilerroa Arabako bi eskualderen muga eta elkar-gune da, batean Mendialdea bestean Errioxa, eta hor Toloño mendia eta bertan antzinako monasterio edo komentu baten aurriak, azken hormak lur joak, abantzu. Lekua, ohi den bezala, inguruetakoko herri guztietako lagunak biltoki da, urtean behin gutienez; izan ere, duela berrogeitaz urtetik hona, ekaineko lehenengo igandean erromeria edo basajai antzeko bat ospatzen da, goizean goizik Urizaharratik gora igorik.



Goian, gainean –10 kilometro inguruko bidaldia, gora-behera handirekin– pagope itzaltsutik ibili eta gero, gure begiak betetzeko eta gozatzeko ikuspegia dugu, lurraldean direnetarik politenetakoa. Monasterio zaharreko horma eroriak ibiltariaren zain, inoiz, aspaldi, lekua bide-gurutze eta otoiz-toki izan zela gogorarazten dizutenak. Eraikin erlijioso haretaz zerbaiteko lehenbiziko idazkiak XIII-XIV. mendeetara garamatza. Independentzia Guduan frantsesek hartu zuten eta, azkenik, Lehenengo Karlistaldian suntsitu zuten.



9

## Asfalto naturala

Arabako Mendialdea deritzon eskualdean haitz asfaltikoa dago, eta behiala meatzariak hor aritu izan ziren, asfaltoa idokitzean. Mea beltz betuna antzekoa, bideen zoladurarako ona eta eraikuntzan ere usatua da asfaltoa. Meategi batzuk ustiatu ziren –batzuek emakume izena zuten, Diana meatzea, esate baterako– Loza aldean, adibidez, aire zabalean. XIX. mendearen erdialdean sei meatzari eta bost gurtzain ibiltzen ziren lanean. Asfaltoa, gehienbat, Frantzia aldera igortzen zen.

Montoria aldean beste meategi batzuk egon ziren baina onak izan arren tikiak.

Prim jenerala –politikari liberal 1870ean erhoa– mea-enpresa haietako akziodun nagusietako bat izan zen. Urteak joanda, garraioa garesti, lekuak transformazio-lante-

gietatik urrun, eta asfalto naturala ordezkaturako zuten beste ekai edo gai sintetikoak sortu izana... azkenean mea bertan behera utzi zen, meatzeak itxirik.

Gaur den egunean, haietako batzuk berriz ere ireki izan dira, turismoari begira batik bat, ingurugiroari loturiko ekimenez.

Urizaharrako anbarra munduan bakarra da. Balio zientifiko handia du eta ikerketarako guztiz berebizikoa, eta honegatik interes kultureleko ondare izendatua dago, Flysch-a bezala eta Eusko-Kantauriko Arroko burdin-, berun- eta zink-meategiak bezala; UNESCOko euskal GEOSITES bakarrak eta interes mundialekoak dira.

+INFO

Urizaharrako Interpretazio Zentroa  
“Sobre la explotación del asfalto natural en Álava. La fábrica de asfaltos naturales de Maestu-Leorza” liburua., Rufino Lopez de Alda Floresena.





## 10 Ipar ibilketa eta BTT

Nordic walking edo ipar-ibilketa egiteko sei gune dagoz Mendialdean eta Urizaharran lau bide maila ezberdinetako, esku banatan makilaz ibilteko ironak, batzuk bestek baino zailagoak edo nekagarriagoak. Leunena, bost kilometrokoa, luzeena 12koa (lau orduko ibilaldia, hor nonbait).

Udalerrri honetan gozartzeko beste aukera bat mendi-txirrinduz ibiltea. BTT bide bat, 35 kilometrokoa, dago, herrirean hasi eta

pagadi ederretan barrena, Pagoeta, Baroja edo Barolha, Loza, Pipaon eta Montoria herrixketatik iragaiten dena, helmuga atzera Urizaharran. Alderdi hau ezagutzeko beste era natural bat, giza-eskuek guti aldaturiko aurkintza eder-eder batean.

# Urizaharra zenbakietan

## Herriak

Baroja-Zumento ·  
Faido · Loza ·  
Montoria · Payueta ·  
Urizaharra

## Beste datu batzuk

325 bizilagun (2024)  
866 bizilagun (1900)  
4 haitzulo  
30.000 gudari eta 50 kainoi  
(Lehenengo Karlistaldiko  
1.go borroka)  
1 taberna - saltoki -  
Interpretazio Zentro  
Aloka-tokirik ez

## Urizaharra

- ◀ ● 27 Km ● ▶ Gasteizera
- ◀ ● 90 Km ● ▶ Bilbora
- ◀ ● 122 Km ● ▶ Donostiara
- ◀ ● 119 Km ● ▶ Iruñera

luze-zabalera  
**57**  
km<sup>2</sup>



# Arabako Herriak

## Amamengandik bilobengana

### Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

